



Tolosako Udal Euskaltegiko irakasleen enplegua finkatzeko prozesu berezia. 2023

Oposizio-faseko 1. probako atalak kalifikatzeko irizpideak

1. atala. Proba idatzia

Idatziz erantzungo dira gaitegian oinarrituta epaimahaiak hautatutako 10 galdera teoriko.

Hiru ordu izango dute izangaiek. Ezin izango dute kontsultarako materialik erabili.

Gehieneko puntuazioa 25 puntukoa izango da, honela banatuta:

- Galdera teorikoak: 17,5 puntu gehenez (17,5 puntu galdera bakoitzeko) (% 70).
 - Aintzat hartuko diren irizpideak
 - Zenbateraino erantzun zaion eskatutakoari.
 - Azalpenen zehaztasun- eta sakontasun-maila.
 - Edukien arteko harremanen eta lotura kontzeptualen garapen-maila.
 - Eskala (galdera bakoitzean)

Eskas	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
Ez du aipatu edo ez da nahikora iritsi. (0 puntu)	Gutxieneko azalpena eskaini du. (Puntu 1)	Azalpen ona. (1,5 puntu)	Oso azalpen ona. (1,75 puntu)

- Euskara-maila: 7,5 puntu gehenez (% 30).

Eskas	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
Zuzentasun-akats nabarmenak edo, zuzena izanagatik, arazo larriak kohesio-koherentzian, testuaren irakurketa zailtzen dutenak. (0 puntu)	Testu nahiko sinplea da, eta zehaztasun terminologiko gutxikoa, baina zuzen idatzia, eta egokitasunean zein kohesio-koherentzian arazo larririk gabea. (3,75 puntu)	Zuzen eta egoki idatzia dago eta, bereziki landua izan ez den arren, ez du kohesio-koherentzian arazorik, oro har. (5,5 puntu)	Zuzena, egokia, aberatsa, zehatza eta bikain egituratua. (7,5 puntu)



2. atala. Ahozko proba

Ahoz erantzungo zaio epaimahaiak jarritako egoera bati.

15' izango ditu izangaiak azterketa egiteko eta 60' aldez aurretik prestaketarako.

Kontsultarako materiala izango du eskura (Internetarako sarbidea duen ordenagailua barne).

Gehienezko puntuazioa 25 puntukoa izango da, honela banatuta:

1. Eskatutako eginkizun komunikatiboa gauzatzea (% 70).
 - 1.1. Sekuentzia didaktikoaren oinarri metodologikoen azalpena (% 20).
 - 1.2. Egituratu beharreko sekuentzia-didaktikoa azaltzea eta argudiatzea (% 50).
2. Euskara-maila (% 30).

	Eskas	Nahikoa	Ongi	Oso ongi
1.1 Sekuentzia didaktikoaren oinarri metodologien azalpena.	Ez dituzte eskatutako arloak aipatu (gaitasun komunikatiboa, ikuspegi soziodiskurtsiboa edo elkarreragina, ikaslearen autonomia) edo ez da nahikora iritsi. (0 puntu)	Kontzeptuen gutxieneko azalpena. (2,5 puntu)	Azalpen ona (esanguratsua eta testuinguratu a). (3,75 puntu)	Azalpen ona eta sekuentzia didaktikoarekin loturak. (5 puntu)

